



DANI BLANCO

Patxi Zabaleta

♦ ARALARREKO KOORDINATZAILEA

Euskal lurraldetasuna eta Nafarroako aldaketa politikoa

NAFARROAN ALDAKETA politikoaren premia sakonki sentitzen den gauza da. Hainbat eta hainbat ordezkari politikok ia egunero jakitera ematen dutena kontuan hartzea nahikoa da errealitate horretaz jabetzeko. Herritarrek kalean egunero azaltzen dute aldaketaren kezka, batzuetan itxaropenaz, besteetan etsipenaz.

Nafarroako indar politiko abertzaleak eta ezkertiarak izan gara, salbuespenik gabe, aldaketaren alde gehienik azaldu garenak. Aldaketa politiko hori bilakatu da oposizioko indar politiko guztion helburua eta xedea.

2007an izan zen Nafarroako aldaketa politikorako egiazko azken aukera. Nafarroa Bai (NaBai) bigarren indarra gertatu zen urte hartako hauteskunde foraletan. Lehen aldia zen indar politiko abertzale batek maila hori lortzen zuela Nafarroan eta ahailegin guztiak egin genituen, PSNri presidente kargua bermatzea eta guzti. Bazirudien posibilitateak zeudela. Areago oraindik, 2007ko martxoan bertan, beraz hauteskundeak baino bi hilabete lehenago zehazki, estatu guztiko eskuinak manifestaldi bortitza egin zuen Espainiako presidente zen Zapateroren aurka.

Gobernuarekin negoziatu genuen eta oinarritzko adostasunak hitzartua ziruditeanean, PSOEek atzera egin zuen. Zergatik? Nafarroa estatu gakoa delako; estatu arazo, alegia.

Iazko martxoan berdin gertatu zen. Alderdi sozialista behin eta berriro Yolanda Barcinaren dimisioa eskatzen ari zenean, EH Bildu-Nafarroak zentsura mozioa aurkeztu zuen eta alderdi sozialistak ez zuen babestu.

Baina, aipatutako guztiaren azpitik eta gaineratik, jarrera zehatz bat nagusitu da Nafarroako politikan eta gizartearen, hauxe: aldaketa deitutakoa behar dela lehenik. Zorionez aldaketa hauxe da euskal lurraldetasunerako bide ibilgarri bakarra.

EAEren eta Nafarroaren arteko banaketa ez zuen Konstituzioak edo autonomiak eragin, mendeak eta mendeak lehenago eman zen, nahiz eta 1976-77an beste jokabide batzuk landu zitezkeen.

Gaur egun bi estatutuak, bai Gernikako Estatutua nola Nafarroako Foru Hobekuntza zaharkituta daude. Bi estatutu hauek eguneratzeak, onargarria izatekotan, nahitaezko baldintza bat bete behar du: erabaki eskubidea jasorik edukitzea, hain zuzen ere.

Beraz, Nafarroako aldaketa politikoaren aldarria hain orokorki onartzeak norabide egokian kokatzen du euskal lurraldetasunaren erronka politikoa. Bide politikoetatik irabaziko da lurraldetasuna eta horren lehen urratsa Nafarroako aldaketa politikoa da. ■

Jarrera zehatz bat nagusitu da Nafarroako politikan eta gizartearen, hauxe: aldaketa deitutakoa behar dela lehenik. Zorionez aldaketa hauxe da euskal lurraldetasunerako bide ibilgarri bakarra



**TXIRRI TA SEGURU
ETORRIKO LITZATEKEELA
KUADRILLA ARTEKORA**

**ARABAKO
BERTSO
KUADRILLA
ARTEKORA**

otsailak 18-apirilak 5

www.bertsozale.com/araba

argia